

HIRU GERRA LIBIAN AZKEN HAMARKADAN

Afrikako herrialdeak lurra jo du Gaddafiren aurkako matxinada gerra bihurtu zenetik

Tripoli hiriburu-ko plaza nagusia da. Duela urte batzuk itsasertzean zegoen eta egun, bi aldeetatik dorre handiek argitzen dute.

Alde batean, gaztelu gorria dago, bere garaian 5.000 urteko antzinatasuna duten piezak erakusten zituen museo ezaguna. Plazan hiru krispeta postu daude, gurdi bat bi zaldirekin eta haurrak plazatik gora eta behera eramaten dituen pottoka.

Musika topera duten bi furgoneta ere ikusten dira, izozkia saltzen dutela gogoraz teko. Era guztietako motorrek plaza zeharkatzen dute, jendea saihestuz. Jende gutxi, hiriburuak 2 milioi biztanle dituela kontuan hartzen badugu.

Dena den, edozein hiritako ohiko irudi bat litzateke, Libiakoa ez balitz, hau da, azken berderatzi urteotan hirugarren gerra pairatzen ari den herrialdekoa ez balitz. Miliziak bata bestearen kontra ari dira eta frontea plazatik kilometro eskas batzuetara dago.

Lehen gerra 2011n izan zen. Guztiz atipikoa, eta herrialde osora zabaldu zena. Ondoko Tunisian lehertu zen Udaberri Arabiarrak bultzatuta, Muammar Gaddafiren erregimenaren aurka eginez hasitako manifestazioak eta protestak

 **KAOSEAN BIZITZEA** /Ricardo Garcia Villanova

2011n, Udaberri Arabiarraren itzalpean, Muammar Gaddafiren erregimenari eta, bide batez, koronelaren beraren bizitzari amaiera eman zion anai-arreben arteko gerra bilakatu zen matxinada. Kaos hartan agertu ziren agenteek, bertakoek eta kanpokoek –munduko potentziak tartean–, hor dihardute, hamarkada baten barruko hirugarren gerra ankerrean borrokatzen.

anai-arreben arteko gerra bilakatu ziren.

Garai hartan gobernuaren aurka altxatu zirenen alde zuzenean esku hartu zuten hainbat potentziak. Horiengatik izan ez balitz, jai izango zuket matxinatuek. Batez ere Bengazin, Libiako ekialdeko Zirenaikako hiriburuan.

Gaddafiren tropak setiopean zeukaten hiriaren ataurrean

zeuden eta lehen liskarrak hasita zeuden. Armadaren indar motorizatua prest zegoen sartzeko, Gaddafiren beraren esanetan «izugarritzko sarraskia egiteko», baina hegazkin militar frantsesek minutu batzuetan suntsitu egin zuten. Errepidean, suntsitutako tanke eta kamioien ilarak ikus zitezkeen, asko sutan. Irudia ikaragarria zen.

Gertaera haiek koronelaren amaieraren hasiera iragarri zuten. Misratak hiria ere setiopean zegoen eta bertara Malatatik itsasoz soilik irits zitekeen.

Gaddafiren indarrek gogor bonbardatu zuten «martiri hiria». Hamar egun luzez, gaueko 5 segundo igarotzen ziren eztanda batetik bestera. NATOren kontrolpean zegoen itsasotik iristen ziren jakiak eta armak portura. Hiri guztia suntsituta geratu zen, portua bera ere bai, baina historikoki otomandarren portu afrikar nagusia izan den Misratahko miliziek erasoaldiari nolabait eutsi egin zioten.

Tripoli askoz aiseago erori zen eta ia ez zen liskarrik izan. Bakanetakoa Bab al-Aziziyan izan zen, hiriaren hegoaldean zegoen Gaddafiren egoitzan.

Frankotiratzaile batzuk zeuden, baina ez zuten asko eutsi.

GADDAFIREN LINTXAMENDUA

2011ko gerraren patua erabaki zuen bataila Sirten kokatu zen, Gaddafiren jaioterrian. Setiotik ihes egiten saiatu zen koronela baina hegazkin frantsesek bere zutabea suntsitu zuten.

Hoditeria batean ezkutatuta aurkitu zuten milizianoek. Arma zuen gainean, baina ez zien aurre egin. Hortxe zegoen hilabete batzuk lehenago telebistatik esan zuena bere aurka zeuden «arratoi» guztiak etxetz etxe ehizatuko zituela. Hortxe zegoen lehen manifestazioak izan zirenean herritarrei tiroz erantzutea agindu zuena, hainbat urtez boterean egon zena. Hortxe zegoen, libiar askoren artean izua eragiten zuena: ikaratuta, begiak

ERRUSIA ETA TURKIA, AURREZ AURRE BAINA ZEHARKA

Haftar mariskalak Tripoli bereganatzeko hamaikagarren ofentsiba iragarri zuen aurreko astean, baina frontea ez da ia-ia mugitu ere egin.

Bere Libiako Armada Nazionalek (ANL) eta ekialdeko tribuek mendebaldeko milizien babesa lortzen ez duten bitartean, ez dute aurrera egingo, miliziek dutelako kontrolpean Tripoli ingurua.

Are gutxiago Misratahko milizia jaioak aurrez aurre dituztenean. Eta hauek ez

dute Tripoliko GNA gobernu maite, baina Haftarri benetako gorrotoa diote.

Gerraren baitako enpate tekniko honetan, nazioarteko potentziak fitxak mugitzen hasi dira. Arabiar Emirerri Batuekin, Saudi Arabiarekin, Egiptorekin eta Frantziarekin batera Haftarren alde ari den Errusiak ehunka mertzenario (800 bat, Tripoliren esanetan) bidali ditu bertara, dirulaguntzekin eta armekin batera. Halere, Putin ez du batere inozoa eta GNArekin ez du harremana

erabat eten, gerra nork irabaziko zain.

Tripoliko GNA eta agindupean –soldatapean– dituen miliziak ere ez dira gai Haftarren ANL garaitzeko, Italiaren, Qatarren eta Turkiaren babesa duen arren.

Azken herrialde hori, batez ere Misratahko gobernu babesten duena, Tripolira soldaduak bidaltzeko prest azaldu da, ordainetan GNAk Zipre eta Libia inguruko itsasoan dauden gas meategiak ustiatzeko baimena emanaz gero.



Bederatzi urte eta hiru gerra hauetan
irudiak oso antzerakoak dira.
Herritarrak gobernu eta milizien
arteko liskarretan harrapatuta daude.
ARGAZKIAK: Ricardo GARCÍA VILLANOVA





noraezean eta gertatzen ziz-
tzaiona ezin ulertuz.

Tratu txarrak eta irainga-
rriak eragin zizkioten, eta az-
kenean buruan tiro eginda
garbitu zuten. Gaddafiren lin-
txamendu publikoarekin
amaitu zen gerra, erresisten-
tzia foku batzuk kenduta.

SIRTE BERRIRO ERE

Gerra amaituta, teorian Libia-
ko gizarteak aurrera egin behar

zuen, baina, aitzitik, egoera az-
toratu egin zen. Boterea esku-
ratzeko eta herrialdea kontro-
latzeko milizien, tribuen eta
eskualdeen arteko gerra gordi-
na hasi zen. Inguruko beste he-
rrialdeekin alderatuta ez zen
liskar sektarioa izan, ez bai-
tzeuden komunitate ezberdi-
nak bata bestearen aurka bo-
rrokan. Hala ere, talde politiko
desberdinak ez ziren ados jarri
gobernu bakarra osatzeko.

Ezintasun horrek eta kan-
poko potentzien esku-hartze-
ak Libiaren ateak zabaltu ziz-
kion Estatu Islamikoari. ElK
Sirte hiria hartu zuen 2014an,
gaddafizaleen laguntzarekin.
Sirte Al-Baghdadiren kalifa
herriaren hiriburu bihurtu
zen, Mosulekin eta Raqqare-
kin batera.

2016an Elren bi eraso suizi-
darekin hasi zen gatazka, eta
orduan erein zen egungo ge-

rra lehertaraziko zuen hazia.
Lehen aldiz hasi ziren erabil-
tzen droneak Elren aurkako
erasoaldia prestatzeko mapak
egiteko.

Hala ere, lehen gerratik bost
urte luze iragan zirenik ere ez
zuen ematen. Izan ere, hantxe
jarraitzen zuten Toyota pick
up-ak, bakoitza bere Duskare-
kin (sobietar aroko kalibre
handiko metrailadore antiaie-
reoak), Dragonovak (sobietar

aroko frankotiratzaileen fusi-
lak), PK-k, tankeen aurkako ar-
ma eramangarri sobietarrak,
AK-k (erasorako sobiet fusi-
lak), T55 eta T62 tanke batzuk
(sobietarrak hauek ere). Ho-
rrez gain, Errusiako Armadak
saltzen dituen Grad misilak
jaurtitzeko kamioiak ere ikus
zitezkeen.

Elren aukako gerra basatia
izan zen eta jihadistek gutxie-
nez 87 Dogma (lehergailuz be-



tetako kotxeak) jaurti zituzten erasotzaileen aurka. Beren bu-ruaz beste egiten zuten amore ematen zutela esaten zuten emakume jihadistek, lehergai-luz jositako gerrikoak gainean. Lehergailu tranpez (Booby Traps) josi zituzten hiriaren inguruak.

Askatasunaren egunean hiri barruan zegoen jihadistak talde txiki batek amore eman zuen baina bizirik erre zituzten guz-

tiak, Libian kalifa herriaren amaiera kiskaldutako giza ha-ragiarekin «ospatuz».

2019ko APIRILA

Elren bukaerak ez zuen bera-rekin ekarri, ordea, milizien arteko gerraren eta familia politikoen arteko liskarren amaiera. Jalifa Haftar jenera-lak, Tobruk ekialdeko hirian egoitza duen gobernu alter-natiboaren agintariak Tripo-

liren aurkako erasoaldia hasi du aurtengo apirilean.

Hirugarren gerra hau infle-xio puntu berria da Libian, kanpoko potentziak birposi-zionatu egin direlako. Gaine-rakoan ez da ezer aldatu. Ho-ri bai, Haftarrek zerua kontrolpean du Arabiar Emi-erri Batuen hegazkin milita-rren laguntzarekin. Baina ezin du Tripoli lurrian bere-ganatu.

Bazirudien kapaza izango zela, baina aurkariak lurreko gerran duten esperientziare-kin (gehienak Misratahko mi-liziakideak dira eta Sirten au-rreko bi gerratan borrokatu ziren) ezinezkoa du eta Tripo-liko GNA Batasun Nazionalako Gobernuak, Nazio Batuen Era-kundearen babesa duenak, zu-tik dirau.

Libia gaur egun xake taula bat da, eta bertan Europar Ba-

tasuna (batik bat Italia eta Frantzia), Golkoko satrapiak eta Egipto, Errusia, Txina eta Ameriketako Estatu Batuak lehian ari dira herrialdearen ondasun naturalen gaineko kontrola zeinek hartuko.

Bertako zibilak, aldiz, larru-tik ordaintzen ari dira egoera hori. Milaka izan dira hildako-ak, duintasunez bizitzeko au-kerarik eskaintzen ez duen he-rrialdean.